

AUZOZ-AUZOKO KANPAINA.

Auzo guztietan informazioa emango da hitzaldi eta informazio bulego ibiltariaren bidez.

Material-kita banatuko da.

HITZALDIAK: 18:00etan euskaraz eta 19:30etan gazteleraz.

- Auzo bakoitzean kit banaketa hasi baino 4 egun lehenago egingo dira (ostegunetan). Erdialdekoa izan ezik, hau 5 egun lehenago izango da (asteazkena).
- Egun berdinean bi hitzaldi emango dira auzo bakoitzean, 18:00etan euskaraz eta 19:30etan gazteleraz.
- Hitzaldi hauetan hondakinen mahaikoek erdietsitako akordioak azalduko dituzte eta mankomunitateko informatzaileek hondakinen nola sailkatu behar diren eta edukiontzi berrien erabilera azalduko dute

KIT BANAKETA 10:00-13:00 eta 15:00-19:00

- Etxebizitza bakoitzari errefusarentzako ontzi grisa, hondakin organikoarentzako ontzi marroia, edukiontziak zabaltzeko txartela, poltsa konpostagarriak, hondakinen sailkapenerako gida eta hiztegia emango zaio.
- Materiala jasotzerakoan helbidea, NAN eta kontakturako telefono zenbaki bat eskatu da.
- Momentuan informatuko da jaso duen txartelarekin zein edukiontzi gune zabaldu ahal izango duen.

INFORMAZIO BULEGO IBILTARIA 10:00-13:00 eta 15:00-19:00

- Kit banaketa egingo den lokal berdinean eta ordutegi berdinean izango da auzo guztietan. Edozein herritarrek hondakinen sailkapenaren edo gaikako edukiontzien erabileraren inguruan dituen zalantzak bertan argitu ahal izango ditu.
- Kit banaketa eta informazio bulegoa leku berdinean izango dira auzo guztietan.

Egutegia.

Musakola auzoan: Azaroak 17-21-ko astean

Hitzaldia: Azaroak 13an Musakolako zaharren egoitzako tabernako egongelan.

Informazio bulegoa eta Kitaren banaketa: Kiroldegian

Santamaina auzoan: Azaroak 24-28-ko astean

Hitzaldia: Azaroak 20an Santamainako jubilatuen egoitzan

Informazio bulegoa eta kit banaketa: Santamainako auzoalkatetzan

San Andres auzoan: Abenduak 1-5-ko astean

Hitzaldia: Azaroak 25ean Etxaluze egoitzan.

Informazio bulegoa eta kit banaketa: Etxaluzeko beheko solairuko egongelan.

Erdialdean: Abenduak 9-12-ko astean

Hitzaldia: Abenduak 3an (asteazkena) kulturaten

Informazio bulegoa eta kit banaketa: Kulturaten

Erguin auzoan: Abenduak 15-19-ko astean

Hitzaldia : Abenduak 11an Zaharren egoitzako tabernako egongelan.

Informazio bulegoa eta Kitaren banaketa: Iturripeko saskibaloiko kantxan.